


Euskal AEko industri jarduera %1,3 gehitu zen 2017ko otsailean

%1,2ko gehikuntza 2017ko lehen bi hiletan

Eustaten datuen arabera, 2017ko otsailean %1,3 gehitu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, 2016ko hil beraren aldean. 2017ko lehen bi hiletan %1,2ko hazkundea, 2016ko aldi beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, %0,8 gutxitu zen industri produkzioa, 2017ko urtarrilaren aldean.



2017ko otsailean, 2016koaren aldean: *Energia* %3,2 jaitsi, *Bitarteko ondasunak* %2,3 gehitu; *Ekipo ondasunak* %0,9 gehitu, *Kontsumo ondasunak* guztira, %2,7. *Kontsumo ondasun iraunkorrek* %13,9 gehitu; *ez-iraunkorrek* %1,6 jaitsi.

2017ko otsaileko hil arteko aldakuntza, 2017ko urtarrilaren aldean, negatiboa industri talde handi guztietan, *Ekipo ondasunetan* (%+2,1) izan ezik. *Kontsumo ondasunak*, guztira, %3,5 jaitsi; *iraunkorrek* %3,9 jaitsi eta *ez-iraunkorrek* %3,3. *Bitarteko ondasunak* %1,1 jaitsi eta *Energia* %3,6.

Euskal industriako pisurik handieneko sektoreen artean, hazkunderik handienak 2017ko otsailean, urte artean: *Garraio materiala* %12,7; *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* %6,1; *Kautxu eta plastikoa* %5,3.

Jaitsierarik handienak urte artean: *Makineria eta ekipoa* %-7,3; *Material eta ekipo elektrikoa* %-2,4; *Elikadura industriak, edariak eta tabakoa* %-1,1.

1. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-0,7
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	6,1
09 - Kautxua eta plastikoak	5,3
13 - Makineria eta tresneria	-7,3
14 - Garraio-materiala	12,7
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-1,1
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-2,4
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	1,9

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Otsaileko Industri Produkzioaren Indizearen urte artekoa: %+5,7 Araban; %+2,6 Bizkaian. Gipuzkoan %-2,4.

Hil artean, 2017ko urtarrilaren aldean: Araban %+1,8, Bizkaian %-1,9, Gipuzkoan %-1,0.

2. taula. Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2017ko Otsaila

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	Ots2017 / Ots2016	A(Ots2017) / A(Ots2016)(*)	Ots2017 / Urt2017	Urt2017 / Abe2016
Indize orokorra				
Euskal AE	1,3	1,2	-0,8	-1,7
Araba/Álava	5,7	3,1	1,8	0,8
Bizkaia	2,6	4,0	-1,9	0,0
Gipuzkoa	-2,4	-2,8	-1,0	-4,8
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	2,7	3,7	-3,5	3,3
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	13,9	13,7	-3,9	9,0
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-1,6	-0,3	-3,3	1,1
Ekipo-ondasunak	0,9	-1,6	2,1	-2,8
Bitarteko ondasunak	2,3	3,2	-1,1	0,1
Energia	-3,2	-0,9	-3,6	-5,4

(*) 2017ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2016eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizeari (IPI) buruzko datu-bankua